Igandean, goizean-goiz familia osoa perretxikotara joan zen. Aita eta Mirenek saski bana bete zuten baina Mirenek tranpa egin zuen bere saskiaren beheko aldea belarraz bete zuelako. Ama eta biok kontu-kontari ibili ginen eta ez genuen ezer aurkitu. Beñat txikiak bi perretxiko on jaso zituen eta beste txar asko bota behar izan genuen. A zer nolako kasketa harrapatu zuen!

- **Nork aurkitu zituen perretxiko on gehien?**

A. Miren- Beñat- aita.

B. Aita- Miren- Beñat.

C. Aita- Beñat- Miren.

D. Miren- aita- Beñat.

E. Beñat- aita- Miren.

- **Zergatik harrapatu zuen Beñatek kasketa handia?**

A. Bi perretxiko jaso zituelako.

B. Perretxiko asko jaso zituelako.

C. Perretxiko gutxi jaso zituelako.

D. Ia perretxiko guztiak bota behar izan zituelako.

E. Perretxiko guztiak bota behar izan zituelako.

- **Zergatik esaten du Mirenek tranpa egin zuela?**

A. Belarrak hartzen ibili zelako.

B. Perretxikoak hartzen ibili zelako.

C. Saskian belar asko zeukala adierazi nahi zuelako.

D. Saskian perretxiko txarrak jarri zituelako.

E. Saskian perretxiko asko zituela adierazi nahi zuelako.

LIVEWORKSHEETS